

FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA

Goi mailako kirolarientzako laguntzen deialdia.

Lehenengoa. - Xedea eta helburua.

Deialdi honen helburua da Kirolaraba fundazioak kategoria absolutuetako eta kirol jarduera berean gorengo mailako lehiaketetan parte hartzen duten kirolari federatu arabarrei laguntzak ematea arautzea. Laguntza horiek 2019an edo 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra artean entrenamenduek eragindako gastuen zati bat finantzatzeko dira, lortu nahi den kirol arrakasta eskuratzeko kolaborazio gisa.

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 123. zk., 2015eko urriaren 21ekoa) arautuko da deialdi hau. Foru dekretu horren bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan, lehia bidez emango diren dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeen oinarri-arau orokorrak onartu ziren; deialdia hemen jasotako eduki eta prozedurara egokituko da.

Bigarrena. - Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen kopuru osoak ezingo du gainditu horretara bideratutako zuzkidura, 18.000,00 eurokoa, 2019ko ekitaldiko Kirolaraba fundazioaren aurrekontuari dagokiona.

Kirolaraba fundazioak ez du zertan aurrekontu osoa agortu.

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatu ondoren gerakina sortzen bada, patronatuari ebazpen proposamena aurkeztu behar dion kide anitzeko organoak proposatu ahal izango du gerakin hori beste laguntza lerro batera edo beste gastu batera bideratzea.

Hirugarrena.- Onuradunak eta baztertuak.

1.- Laguntza horien onuradun izango dira kirolari federatu arabarrak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1.1.- 18 urte beteak izatea, deialdi honetan eskaerak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denean.

Baldintza hori egiaztatzeko NANaren fotokopia aurkeztuko da, edo eskatzailea atzerritarra izanez gero, bizileku txartela.

1.2.- Gutxienez 2015eko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean jarraian erroldatuta egotea.

Eskatzaileak erroldatuta egoten jarraitu behar du eskaera egiten den unean.

Eskatzaileak, ezinbestean eta aldi baterako, erroldatuta egon behar badu Arabako Lurralde Historikotik kanpoko udalerriri batean –nahitaezkoa delako haren kirol jarduera hobetu ahal izateko-, baldintza hori betetzetik salbuetsita geratu ahal izango da, aurrez eta idatziz horren arrazoiak ematen baditu.

1.3.- Dagokion kirol modalitateko Arabako federazioak emandako federazio lizentzia indarrean izatea (2018/2019 denboraldikoa edo 2019. urtekoa).

Baldintza hori egiaztatzeko, indarrean dagoen federazio lizentziaren fotokopia aurkeztuko da, edo, hala badagokio, kasuan kasuko Arabako federazioaren ziurtagiria.

.....

Eskatzaileak, ezinbestean eta aldi baterako, Arabako Lurralde Historikotik kanpoko udalerrri bateko kirol federazio bateko lizentzia lortu behar badu –nahitaezkoa delako haren kirol jarduera hobetu ahal izateko-, baldintza hori betetzetik salbuetsita geratu ahal izango da, aurrez eta idatziz horren arrazoiak ematen baditu.

1.4.- Kirol historia/proiektu bat aurkeztea (honekin batera doan eranskinean), klubak eta, egoki bada, dagokion kirol federazioak sinatuta eta haren bermearekin.

1.5.- Nor bere kirol modalitatean, gutxienez estatuko, Europako edo mundu mailako txapelketetan edo Olinpiar Jokoetan lehiatu izana.

Hona hemen kirol jarduera horiek: Espainiako, Europako, mundu mailako eta Olinpiar Jokoetako txapelketak, 2018. urtean edo 2018/2019 denboraldian egindakoak eta dagokion federazioak edo Nazioarteko Olinpiar Batzordeak antolatutako, betiere kategoría gorenear.

“Kategoria gorentzat” hartuko da goreneko maila edo taldea, lehiaketa jakin bat hainbat mailatan sailkatuta dagoenean.

Kirol proba horiek lehiaketa mailarik gorenei dagozkiela iritziko da, eta, horren ondorioz, baztertuta geratuko dira 2 mailako, 3 mailako edo B mailako txapelketak, oinarritzko mailako txapelketak, 2. mailako txapelketak, autonomia erkidegoetako selekzioak eta antzekoak.

“Zazpi Herrialde” izeneko lehiaketan parte hartzea Espainiako txapelketan parte hartzearen parekoa izango da.

Herri kirolletako modalitateei dagokienez, autonomia erkidegoetako lehiaketetan parte hartzen duten kirolariak laguntza honen onuradun izango dira, eta modalitate horiek Espainiako txapelketekin parekatuko dira.

Aurkeztutako modalitate eta/edo espezialitatea ez badago existitzen diren federazioetan jasota eta ofizialki aitortuta, orduan fundazioaren patronatuari ebatzen proposamena aurkeztu behar dion kide anitzeko organoak existitzen diren federazioen arteko baliokide bat erreferentzia gisa hartu ahalko du, egokitzen joz gero.

“Kirolari” hitzak barne hartzen ditu soilik nor bere kirol modalitatean/diziplinan lehiatzen diren -fisikoki parte hartzen duten- pertsonak; beraz, hitz horrek kanpo uzten ditu epaileak, arbitroak, komisarioak eta araudia kudeatzea dagokien gainerako pertsonak, bai eta aipatu parte-hartzaileen prestakuntzaz, entrenamenduez eta hobekuntzaz arduratzen diren pertsonak ere.

Emandako datuak bakar-bakarrik mailarik goreneko eta kategoría absolutuko kirolariari buruzkoak izango dira. Horren ondorioz, ez da onartuko eskatzailearen datuak beste pertsona batzuenekin nahasita ematea.

2. Kirolari hauek baztertu egingo dira eta eskaera hauek ez dira aztertuko:

.- Deialdi honen dagozkien ataletan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez duten kirolariak.

.- Klausula hauetan ezarritako lehiaketaren batean parte hartu izana justifikatzen ez duten kirolariak.

.- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluari adierazitako arau-hausteengatik zehapena jaso duten kirolariak, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotzen dituen kasuetan daudenak edo kirol arloko beste edozeinetan (dopinga...) daudenak ere.

.- Ezin izango dira laguntza hauen onuradun izan kirolari profesionalak diren kirolari federatuak.

3. Baldin eta kirol klub eta elkarteren baten eta erakunde horretako kideren baten eskaerarik jasotzen bada, eta bakoitzak dagokion deialdia kontuan hartuta egin badu eskaera, taldeak egindako eskaera eta ez banakoak egindakoa lehenetsiko da; hau da, klubaren eskaera hartuko da kontuan eta baztertu kirolariarena.

Laugarrena.- Eskaerak aurkeztea.

1.- Pertsona bakoitzeko eskabide bakarra aurkeztu ahalko da.

2.- Kirolaraba Fundazioaren Patronatuari zuzendu beharko zaizkio eskaerak, eranskin gisa atxiki den ereduaren arabera, eta Fundazioaren gizarte egoitzan aurkeztu (Probintzia plaza, 5, 3. PK: 01001 Gasteiz).

3.- Betiere, jakinarazpenetarako ematen den helbidea adierazi beharko da.

4.- Laguntza hauek eskuratzeko eskaerak aurkezteak deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berriaz onartzen dela esan nahi du.

5.- Ez da onartuko oinarri hauetan zerrendatuta ageri diren datu eta agiri guztiak jasotzen ez dituen eskaerarik.

Hala ere, aurkeztutako datu edo dokumentazioaren bat osatugabe badago edo aski ez bada, fundazioak eskubidea izango du eskaera aurkeztutako datuekin ebatzi edo kasuan kasuko gabezia zuzentzeko hamar eguneko epea emateko, ohartaraziz hala egin ezean eskaera bertan behera utzi dela ulertuko dela, aldeztu aurretik horren inguruko ebazpena emanaz.

Laguntza eskaera bat izapidetzeko onartzeak ez du esan nahi hura emateko konpromisoa dagoenik.

6.- Laguntza deialdi honetan parte hartzeko interesa duten kirolariek eskaera (i. eranskina) aurkeztu beharko dute, inprimaki normalizatuetan, gutxienez agiri hauekin batera eta adierazten den moduan:

6.1.- 1. orria: pertsona eskatzaileari buruzko datuak, posta bidez jakinarazpena egiteko helbidea eta emandako datuak lantzeko baimena, aurkezten duen dokumentazioa adieraziz eta dokumentua sinatuz.

6.2.- 2. orria: eskatutako agiriak (NANaren fotokopia, federazio lizentziaren kopia eta abar).

6.3.- 3. orria: kirol historia eta proiektua. Kirol arrakasten historia, entrenamendu planaren deskribapen laburra eta parte hartzeko asmoa duen lehiaketaren proiektua. Agiri horiek klubaren arduradunak sinatuta egon behar dira.

6.4.- 4. orria: dagokion Arabako federazioaren ziurtagiria, pertsona eskatzailearen administrazio datuak eta heldu den lehiaketa maila adierazten dituenak. Agiri hori aipatutako Arabako federazioko arduradunak bete eta sinatu behar du.

6.5.- 5. orria: entrenamendu aldirako gastu konputagarrien aurrekontua eta diru sarreraren guztizko aurrekontua. Adierazitako ezin kasuistikaren pean ez dagoelako ziurtagiria. Pertsona interesdunak sinatu behar du agiri hori.

6.6.- 6. orria: banku kontuaren zenbakia, IBAN kodea ere adierazita. Agiri horrek banku erakundearen zigilua izan behar du, adierazitako kontu zenbakia pertsona eskatzailearena dela ziurtatzeko moduan.

Nortasun agiri nazionalaren (NANA) fotokopia erakunde eskatzaileari alta eman behar izanez gero baino ez da aurkeztuko.

7.- Eskatzaileak Foru Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

Agiri osagarriak:

Organo izapidegileak egokitzat jotzen dituen agiri, argibide, egiaztagiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie pertsona eskatzaileei, dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatuta ahal izateko.

Fakturak jatorrizko formatuan aurkeztu behar dira; hortaz, ez dira halakotzat joko fax bidez datozenak, eskaneatuta daudenak, posta elektronikoko bidez bidaltzen direnak, ezta antzekoak ere.

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko, besteak beste, datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituzten ordainagiri edota fakturak:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izen-abizenak eta NANA.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Faktura zk.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; han agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.

- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; han agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

- Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

- Jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Langileen gastuei dagokienez, aukera hauen artean edozeinekin justifikatu ahalko dira:

- Jatorrizko nominak, langileak izenpetuak, non izenpearen bidez langileak soldata jaso duela adierazten baita.

- Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, non agertuko baita langileak kobratu egin duela eta kobratutakoa zein hilabetekoa den.

- Langileen jatorrizko 10-T agiriak.

- Nominen ordainketa pilatuaren banku laburpen jatorrizkoa, eta, harekin batera, enpresa/entitate onuradunaren ziurtagiri bat, azalduz ezen dagozkien langileen nominak transferentzia jakin baten kontura daudela ordainduta, adieraziz zein zenbateko dagokion langile bakoitzari aurkeztutako hileko bakoitzeko.

- TC1. GSren aplikazioaren bitartez sortutako dokumentua (RED sistema), hatz azterna digitalarekin edo horren kopia konpultsatu gabearekin edo jatorrizkoa, GSren bulegoetan aurkeztuz, finantza erakundearen baliozkotze zigiluarekin edo, hala badagokio, kotizazio ordainketen laburpenarekin.

- TC2. GSren aplikazioaren bitartez sortutako dokumentua (RED sistema), hatz azterna digitalarekin edo horren kopia konpultsatu gabearekin edo jatorrizkoa, GSren bulegoetan aurkeztuz.

PFEZaren gainean egindako atxikipenak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, aurkeztutako hiruhileko 110 ereduak, PFEZaren gaineko atxikipenak eta konturako diru sarrerak eta haien ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitekeen gastutzat jotzeko, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren edo zerga egoitzaren kokalekuko zerga administrazioaren ebazpena aurkeztu beharko da. Ebazpen horretan, onartuta egongo da erakundearen izaera soziala, BEZaren Foru Arauaren 20.Hiru artikuluan ezarritakoa, BEZaren Foru Arauaren 20.Bat artikulua 13. apartatuak jasotzen duen zerga salbuespena aplikatzeko.

Fundazioan aurkeztutako jatorrizko egiaztagiriei zigilua jarriko zaie, eta bertan justifikatutako eta eskatutako dirulaguntza agertu beharko da, baita egiaztagiriaren zenbatekoa dirulaguntzari osorik edo zati batez egotzen zaion ere. Azken kasu horretan, gainera, dirulaguntzak eragindako zenbateko zehatza adierazi beharko da.

Emandako datuak bakar-bakarrik mailarik goreneko eta kategoría absolutuko kirolariari buruzkoak izango dira. Horren ondorioz, pertsona eskatzailearen datuak eta beste pertsona edo talde batzuenak nahasita ematen badira, ez dira kontuan hartuko balioztatzeko eta ez dira onartuko justifikatzeko.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko irailaren 2an hasi eta 2019ko irailaren 30ean amaituko da, egun hori barne.

Seigarrena. - Laguntzak emateko irizpideak.

Datu hauek, bakar-bakarrik, laguntza eskaeraren xedea den kategoría absolutuko eta maila goreneko kirolariak sortutakoei buruzkoak dira.

1.- Hirugarren oinarriak jasotzen dituen eta diruz lagun daitezkeen jarduera guztien laguntza irizpideak haztatzeko eta laguntzok eman ahal izateko, irizpide hauek izango dira kontuan, hau da, laguntzaren xede den goi mailako kirolariaren datuak baino kontuan hartzen ez dituen irizpide hauek:

Gastu konputagarrien aurrekontua: gehienez ere 25 puntu, eta honela xehakatuta:

Gastu konputagarriak	Puntuak
1.000 euro gehienez	1
1.000,01 euro eta 5.000,00 euro bitartean	5
5.000,01 euro eta 10.000,00 euro bitartean	10
10.000,01 euro eta 15.000,00 euro bitartean	15
15.000,01 euro eta 20.000,00 euro bitartean	20
20.000,01 euro baino gehiago	25

6.1.- Apartatu honetako puntuak kalkulatzeko bakarrik, entrenamenduek sortutako gastu konputagarritzat honako hauek hartzen dira, baldin eta laguntza eskaeraren xedea den kirol jarduerak eragiten baditu eta jarduera hori egiteko beharrezkoak badira:

- a) Entrenatzaile eta begiraleen eta, hala badagokio, laguntzaileen, mekanikarien eta pareko ezaugarriak dituztenen ordainsarien gastuak, entrenamendu aldiari dagozkionak, gehienez 12.000 euroko mugaraino.

Fakturak jarduera horretako enpresa edo profesional adituenak izango dira; beraz, baztertu egingo dira irabazteko xederik gabeko erakunde, federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko beste batzuetatik datozen guztiak.

- b) Ordainsarien gastuak, entrenamendu aldiari dagozkionak, medikuntza, fisioterapia eta masajeen zerbitzuenak, albaitaritza, ortopedia zerbitzuenak eta pareko ezaugarriak dituztenenak, gehienez 2.000 euroko mugaraino.

Fakturak jarduera horretako enpresa edo profesional adituenak izango dira; beraz, baztertu egingo dira irabazteko xederik gabeko erakunde, federazio, klub, kirol elkarte eta antzeko beste batzuetatik datozen guztiak.

- c) Lizentzia, kanon eta federazio tasen ondoriozko gastuak (abalak eta zigorrak ez), entrenamendu aldiari dagozkionak, gehienez 500 euroko mugaraino.

- d) Entrenamenduetarako kirol ekipamendua erostearen ondoriozko gastuak; gehienez ere, 1.000 euro.

- e) Kirol material suntsikorra erostearen gastuak (baloiak, bolak, botika kutxako materiala eta entrenamendurako behar-beharrezkoa den edozein material); gehienez ere, 1.000 euro.

Salbuespen gisa, onartuko dira bertoko kirolarekin lotutako materialak, norberak erabiltzekoak badira edo hertsiki suntsikorrak ez badira ere.

- f) Entrenamenduetarako instalazioak alokatzeak eragindako gastuak, gehienez 1.000 euro.

Laguntzaren zenbatekoa puntuazio baremoaren arabera kalkulatzeko ezin dira gastu konputagarritzat jo honako hauek (aldiz, jardueraren gastu guztiak zenbatzeko bai jo daitezke gastu konputagarritzat):

- a) Aurreko idatz zatietan konputagarritzat definitutakoen artean sartzen ez diren gastuak
b) Konputagarrietan sartuta egonik ere haientzat ezarritako mugak gainditzen dituztenak, gaindikinaren zenbatekoan.

Zeharkako zergek ezingo dute laguntza ekonomikorik jaso berreskuratu edo konpentsatu ahal direnean.

Laguntzak banatzeko puntuazio bidezko banaketa sistema bat aplikatuko da. Horretarako, bigarren klausulan zehaztutako zenbatekoa erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturaren artean zatituko da. Horren emaitza puntuaren balioa izango da. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, betiere zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta, ez badu gainditzen jardueraren gastua.

Emaitza gisa lortutako kopurua edozein dela ere, honako muga hauek aplikatuko dira:

1. Jarduera defizitari dagokion muga: gastu guztien eta diru sarrera guztien arteko aldea izango da muga.

2. Gastu konputagarriaren muga: gastu konputagarrien kopuru osoa izango da muga.

3. Eskatutako kopuruaren muga.

Eman beharreko zenbatekoa zeinahi dela ere, muga bat izango da kirolari eskatzaileko: 5.000,00 euro.

Laguntzak aurkeztutako datuekin aplikatuko dira, eta ezingo dira ondorengo urteetarako eskatu.

Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

Laguntzak aurkeztutako datuekin aplikatuko dira, 2018ko irailaren 1etik 2019ko abuztuaren 31ra arteko aldiari dagozkionak; ezingo dira ondorengo urteetarako eskatu.

Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

Laguntzen eskatzaileek aurkeztutako datuak egiazkoak direla frogatzeko eskubidea izango du fundazioak. Fundazioak egiaztatzen badu aurkeztutako datuak faltsuak direla, datuok etorkizuneko deialdietatik kanpo geratuko dira, eta, hala badagokio, jasotako kopurua itzuli egin beharko da.

Zazpigarrena. - Eskaerak aztertu eta ebaztea.

1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero aztertu eta ebatziko da, hala badagokio, laguntza ekonomikoak ematea edo ukatzea.

2.- Espedientea aztertuta, kide anitzeko organo batek egingo du dirulaguntza proposamena, hau da, Fundazioko Patronatuak hautatutako hiru pertsonak osatutako kide anitzeko organo batek.

Kide anitzeko organoak behin betiko ebazpen proposamena aurkeztuko dio fundazioaren patronatuari.

3.- Behin betiko ebazpen proposamena ikusita, fundazioko patronatuaren presidentziak gehienez sei hilabeteko epean ebatziko du deialdia, ALHAOn argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ulertuko dute eskaera ezetsi egin dela.

4.- Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta dirulaguntza zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpenaren berri emango zaie pertsona onuradunei, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

5.- Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio fundazioa atxikita dagoen saileko diputatuari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita, bat etorritz administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 122. artikuluan xedatutakoarekin. Errekurtsuaren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, errekurtsua ezetsi dela ulertu behar da.

Errekurtsoaren ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Emandako datuak bakar-bakarrik mailarik goreneko eta kategoria absolutuko kirolariari buruzkoak izango dira. Horren ondorioz, ez da onartuko mailarik goreneko talde absolutuaren datuak beste talde batzuenekin nahasita ematea.

Zortzigarrena.- Laguntza ordaintzea.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, dirulaguntzaren ebazpena eman ondoren, Kiolaraba fundazioaren 2019ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren kontura, eta PFEZaren dagokion atxikipena ezarriko zaio.

Ordainketa ezingo da egin harik eta onuraduna zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzean egunean egon arte.

Bederatzigarrena.- Justifikazioa.

Dirulaguntzen justifikazioa egiteko, kontuan hartu beharko da zer xedatzen duen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak hamargarren klausulan.

Laguntzen pertsona onuradunek, 2019ko abuztuaren 30en bukatuko den epean, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Memoria-likidazioaren inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta egindako gastua justifikatzen duten agiriekin batera.
- b) Fundazioaren publizitatearen presentzia onuradunean.

Pertsona onuradunak 2019an zehar fundazioaren laguntzaren bat jasotzekotan bakarrik, fundazioaren publizitatea agertzen delako froga jaso beharko du entregatu beharreko dokumentazioan (kirol ekipazioa, kartelak, webgunea edo beste edozein hedabide).

Jarduera egin eta gero, aurkeztutako datuetan edozein aldaketa eginez gero, horrek eskabidean adierazi ziren eta dirulaguntza kalkulatzeko oinarri moduan erabili ziren datuetan aldaketarik sortzen badu, hura berriro kalkulatu beharko da, deialdi honetan jasotzen diren irizpideen arabera, eta ezin izango da, inola ere, hasieran bideratutakoa baino handiagoa izan.

Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak balio gabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

Hamargarrena.- Publizitatea.

1.- Deialdi hau ALHAOn iragarki bat jarritz jakinaraziko da. Horrez gainera, fundazioaren webgunean ere jarriko da: www.kiolaraba.eus.

2.- Onuraduna behartuta dago berriaz eta modu argian adieraztera diruz lagundutako jarduerari buruzko argibide, publizitate eta propaganda orotan Kiolaraba fundazioak babesa eman duela; edonola ere, laguntza ekonomikoa ematen zuen ebazpenean zehazten ziren baldintzetan egingo da hori.

Hamaikagarrena.- Interpretazioa.

Deialdi hau interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza Kirolaraba fundazioak ebatziko du.

